



Babarrun onena, Irurakoa

IRABAZLEA ▶ Mari Karmen Iradi ekoizleen elkarteko lehendakaria izan zen lehiaketako irabazlea; 1.100 euro ordaindu zuten lakaria

TXAPELA ▶ Txapela ondoen jarri zuena Manuel Tolosa izan zen, hirugarren urtez, eta nesken artean, Desiree Gonzalez ▶ 6-7



Irabazleak. Ezkerretik hasita, Mari Karmen Iradi irurarra, Pakita Rekalde irurarra eta Joxe Mujika legorretarra, babarrun ekoizleen lehiaketako lehen hiru sailkatuak bere garaikurrekin Trianguloan. INIGO TERRADILLOS



Babarruna. Aste osoko protagonista izan da; irabazlearen lakaria 1.100 euro ordaindu zuten Bartzelonako Sagardi jatetxeak. I.TERRADILLOS



Txapela. Hauek izan ziren maila desberdinetan txapela ondoen jantzi zutenak atzo Txinparta elkartearen. I.TERRADILLOS



LANDARRI, S.L

Hilerrien ustiapena eta kudeaketa

Kanposantuko Lanak

- Ehorzketak
- Lurpetik ateratzea
- Gerakinen lekualdetzea
- Gerakinen errausketa
- Errausketa zerbitzua
- Hilerriaren proiektuak
- Hilerriaren eraldaketak
- Eraikuntza ezberdinak
- Hilobien apainketa
- Hilarriak
- Panteoiak
- Hilobiak
- Estelak
- Fotozaramiak
- Estanpaziozko teknikak


Santa klara, 1 behea - TOLOSA

Tel./faxa: 943 67 01 14 • Zerbitzu iraunkorra: 610 552 552

Bidasoa, 9 behea -ORERETA- ERRETERIA

Tel.: 943 34 04 67 • Faxa: 943 51 31 41

www.landarri.com • landarris.l@terra.es





UZTURRETIK ▶
EKAIN GARMENDIA

Poltsikoan gordetako akuarelak

Ez izan presarik boligrafoarekin —esan dio Pam-ek, katiluan kafea botatzen dion bitartean— ja ez dut behar, bete dut lehenago lotoaren papera.

—Eta zer egingo duzu irabazten baduzu? —galdetu dio Ann-ek, jakin-minez. Alkandoraren poltsikotik argazki bat atera, eta mahai gainean jarri dio Pamek. Modelo baten argazkia da.

—Horrelako neskato bat bihurtu, mediku on baten esuetan jarriko dut neure burua. 95 tailako bularrak eta baselinazko ezpainak, bai horixe! —Argazkia berriro hartu, kontu handiz tolestatu eta berriro poltsikoan sartu du.

Aurrekoa, noski, pelikula bateko eszena da (pelikuletatik kanpo ez dut Ann edo Pam izenekorik ezagutzen). Eta, pelikulako protagonista Ann izan arren, Pamen pertsonaia da atentzioa eman zidana. Bere ametsarengatik. Eta ez hura (bere gorputza nazka emateraino plastifikatzea) erridikulua edo zelako, poltsiko batean kabitzen den ametsaren imajina gustatzen zaidalako baizik.

Alde batera utzi ditugu amets eta proiektu handiak. Lasa geratzen zaizkigun jertseak bezala, amets handiak modaz pasatu dira, poltsikoko ametsak dira orain modan daudenak. Egia esan, moda ximple bat baino zerbait gehiago dela esango nuke. Askoz gehiago.

Jada gutxitan ikusten dugu daukaguna arriskuan. Gure hurrengo hilabeteetako uzta ez dago eguraldiaren kapritxoan mende, ez dugu basora atera beharrik jan bila. Jada ez gara tragikoki bizi, bizitza arrunt eta normalak ditugu (burges txikiak eginda gaudela esango dit nostalgikoren batek. Ba bai, halaxe da). Horregatik, ametsen egitekoa ere erabait aldatu da. Jada ez dira gure eguneroko bizitza eraldatzearen esperantza, gure egunerokotasuna albokoarengatik desberdintzeko modua baizik. Amets desberdinak, bizimodu desberdinak. Koardro txikiak sortzeko erabiltzen ditugun margoak dira, poltsikoan sartzen ditugun akuarela txikiak.

GUTUN@K ▶



Eskubide guztiak?

«Ideia guztiak, eskubide guztiak, sentimendu guztiak defendatu daitezke baina modu baketsuan eta hitzaren bidez». Egunero ahotan esaldi hori darabiltenek gezurra diote lotsarik gabe, ezen ideia, eskubide edo sentimendu horiek beraienak ez diren bakoitzean, bere ez egiteaz gain kriminalizatu egiten gaituzte eta, gainera, beren ahotsa ez den besteren bat entzutea galarazten saiatzen dira.

Horixe egiten saiatu dira Tolosako Leidor zineman azaroaren 1ean izan zen Nazioarteko Abesbatzen Lehaketaren sari banaketa zela eta egin zen presoan aldeko kontzentrazioarekin. Alderdi Popularreko Maria San Gilek esan zuen, hainbat komunikabideren laguntza izan zuela —*Diario Vasco*, Radio Euskadi...—, oldarka sartu ginela sari banaketan ekitaldia hon-

datu eta kutsatzera, eta gezurra dio, baina, berak erraz esaten du gezurra, ezen beren gezurrek konunikabide guztietan izaten baitute oihartzuna.

Diario Vasco-k zioen indarka sartu ginela argazkien kartelak eta pankartak ginetuela 30 bat segundotan, eta pertsona batek besaulki-barlatik erantzun egin zigula, baina gezurra dio ezen ez baikinena pankartekin sartu, gezurra dio ezen ez baikinena 30 segundotan egon, 2 minutuan baizik, eta egia bada ere «asaldatu eta bortitz» batek besaulki-barlatik liskar eta irain egin zigula, zerikusirik ez dugun eta gainera desahertzera nahi dugun gertaera hainbaten erantzule gu eginez —egunero Euskadin izaten diren indarkeria ekintza guztiak, atxilotetak, torturak, edozein aldeko hildakoak, gure etxekoentzako bizi arteko zigorrak, askatasuna beste batzuztat —Galindo, Roldan...—.

Diario Vasco-k esan ez duena hauxe da: hainbat eta

hainbat pertsonak —horieta-ko batzuk zutik jarrita—txalo egin zigutela euskal preso politikoekin familiakoei elkartasuna adieraziz, eta horixe zen lortu nahi genuena Euskadin errealtate politiko eta eguneroko bat badagoela demokrazia esanahietan huts den hitz baino ez dena gure eskubideak aldarrikatzen ditugun euskaldunontzat, preso diren gure familiakoek Euskal Herrian egoteko duten eskubidea bezala eta euskal gatazka deitu izan dena konpontzeko eman behar den prozesuan zati garrantzitsu gisara esku hartzeko duten eskubide bezala.

Eta horregatik igande gauean abesbatzetako partaideen ordezkari dossier batzuk eman genizkien egunero Espainiako komunikabideek eta euskaldun batzuk ezkutatu eta ezin dutenean ezkutatu desitxuratu egiten duten errealtate hori zein den azaltzeko asmoz. Eta horrexegatik sartu ginen Leidorren (ez oldarka sartu), eta horrexegatik adierazi genien

adierazi behar genienei zein zen gure asmoa: Sari banaketan arazorik egon ez zedin, eta horrexegatik sartu ginen ekitaldia hasi aurretik. Ekitaldian zeudenen jarrera esker-tu nahi dugu, baita sari banaketa antolatutako dutenen elkar aditza. Ez, ordea, Jokin Biddarratzen jarrera, dossierak eman genizkionean uko egin baitzuen abesbatzen ordezkari gu han zergatik geunden azaltzeari eta nortzuen izenean ari ginen azaltzeari. «Euskal presoak Euskal Herriara» ez soilik hitz politikak dirrelako, Jokin.

Uste dugu argi geratu dela gure agertzearen zergatia, eta euskal gizartean orokorrean eta euskal presoekin familiakoei bereziki gure preso eskubideak aldarrikatzeko bidea dela badakigula aditzera eman nahi dugu, eta horrelako ekintzak ez ditugula gustuz egiten, hori egitera behartzen gaituztelako baizik, eta ez ditugula gure presoak eta gainerako errepre-saliatuak bakarrik utziko.

JON IJURKO ▶ TOLOSALDEKO ETXERAT

LUKAS LASA MURUMENDI ▶ UDALEKO LAGUNTZAILEA

«Gaztain jateak eta Eguberrietako zuhaitza ditut orain buruan»

Hemezortzi urterekin hasi zen Lukas Lasa Udaleko lanetan laguntzen; orduz geroztik, Eguberrian, Karmen jaietan, gaztain eta sardin jatean... esku bat botatzen aritzen da

OLAIA ESKITXABEL

Lan bat amaitu eta hurrengo lanetan pentsatzen jartzen den horietakoa da Lukas Lasa alegiara. Lanbidez arotza, jubilatutako ondoren, «lagunek eskutako lantxoak eta udaletxekoak» egiten ditu egun. Hemezortzi urterekin herrian antolatzen ziren ekitaldietan esku bat botatzen hasi zen; eta, egun ere, horretan aritzen da. **Aitari kioskoa jartzen laguntzen hasi omen zinen; ondoren ardura gehiago hartzen joan zara, ezta?**

Karmen jaietan, kioskoa jartzen, haurrentzako jaiak antolatzen, txokolatea egiten, sardinak erretzen... aritzen naiz; herriko udaltzaina, garbitzailea

eta nire artean lan banaketa egiten dugu eta oso ondo moldatzen gara. Horretaz gain, gaztainak, sardinak... erretzen ditut. Eta Eguberrian, herriko plazan zuhaitza jartzeaz, txabola montatu eta apaintzeaz, Erregetako kabalगतээ... arduratzen naiz.

Urtea amaitu bitarte zein lan dituzu egiteko?

Jubilatu Eguneke eta Udalak antolatutako gaztain jateak eta Eguberrietako zuhaitza ditut orain buruan. Pasa den astean, zuhaitza moztera joan ginen eta laister kamioiean ekarri eta plazan jarriko dugu. Karmen jaiak amaitu bezain laister Eguberrietako eginbeharretan pentsatzen jartzen naiz eta, ondoren, Karmen jaietan.

Olentzeroak hotza ez pasatzeko, udaletxera sartzen omen duzu gauero.

Olentzeroa lapurtu edota hautsi izan dute behin edo behin. Orain ez da hori gertatzen. Egunero, 19:30ak 20:00ak inguruan udaletxera sartzen dit; eta Olentzeroarekin batera, zintzilika jartzen diren danbolina, ardo botilak... Hori dela eta herriko askok Olentzero deitzen didate.

Denak gozatzen eta zu lanean. Ez al zaizu gogorra egiten?

Gustura aritzen naiz lanean. Etxean pixka bat haserretzen zaizkit horregatik; herriko udaltzainak, berriz, bera jubilatutako bitarte horrela jarraitzeko esaten dit. Beti egin ditudan la-

nak dira eta ez ditut erabait alde batera utzi nahi. Jaia norberak egin behar du besteei begira egon gabe eta lan horiek egiten primeran pasatzen dit.

Gaztainak erretzea da zure trebetasunetako bat. Zein da zure sekretua?

Danbolinean egiten ditut eta pazientzia izatea da sekretua. Orain dela hemezortzi urte inguru hasi nintzen gaztainak erretzen; danbolina egin eta orain udaletxean gordetzen dugu. Kiloa 50 pezetatan zegoen hasi nintzenean; iaz, kiloa bi euro eta erdi ordaindu nituen. Aurtun, Santa Klarako mojen-tzat ere erre ditut gaztainak.

Sardinak erretzen ere zu iritzen omen zara.

Karmen jaietako sardin jatean jende asko biltzen da; sekulako giroa egoten da eta oso lan polita da. Gaztainak erretzea baino lan gozoagoa da ez daukatzulako hainbeste denbora suaren aurrean egon beharrik.

Arotza izango ez bazina sukaldari, orduan.

Etxean, arkumea, txuletak... nik prestatzen ditut, baina eguneroko janaria emazteak egiten du. Ogia ere egin nuen pasa den astean nik egindako labearekin.

Jaien hasiera emateko txupinazoa zuk prestatzen duzu, ezta?



XABI ALONSO
FUTBOLARIA

«Liverpoolen gauzak ondo egiteko itxaropena nuen eta, oraingoz, ezin dut kexatu»



MIGUEL ARRETXE
TITIRIJAI-KO ANTOLATZAILA

«Tolosak instalazio egokien behar handia dauka; jaialdirako leku bat behar dugu»

IRITZIA ▶ MARTIN MANTXO (NEKAZAL TEKNIKARIA)

Tolosako babarrunaren inguruan

Tolosako babarrunaren aukeraketa eta hobekuntza lanak 1985ean hasi ziren. Nekazal Ikerketa eta Hobekuntza Zerbitzuan babarrunaren landaketan izan zuten arazoaren kezka jaso genuen. Kasu askotan laboreetan eragiten zuen eta landareen garapena oztopatzera iristen ziren.

Hobekuntza programa hasi genuen. Hiru diputazioetako nekazaritza zerbitzuek elkarrekin ekin zioten lan horri. Agentzia guztietan Tolosako Babarrunaren landa materialaren azterketa egin zen —Bizkaian eta Arabako leku batzuetan Gernikako babarruna deitzen zioten—. 140 mota desberdin lortu ziren Euskal Herriko baserri desberdinetatik. Identifikazioa, balorazioa eta kontrola Tolosaldeko Nekazal Bulegoan egin ziren. Hurrengo urtean babarrunaren aukeraketa egin behar genuen bertan. Tolosako motaren ezaugarriak zituzten 110 babarrun desberdinen identifikazioa eta balorazioa hasi zen Ibarako Montes etxean.

Material horretatik aukeraketa lanean hasteko 80 lerro lortu ziren. Lan hori Tere Sotilek eta nik neuk egin genuen bi urtetan (bi laborantza). Lan oso interes-

garria eta balore tekniko handikoa izan zen. Hurrengo urtean Gipuzkoako Foru Aldundiko zerbitzuen laguntza lortu zen Hondarribiako lursailean. 5.000 m²-ko saila prestatu genuen 120 partzelatan 30 mota desberdin landatu genituen bere portaera aztertzeko —30 moeta, bakoitza lau aldiz—, estatistika prozedurekin lan egin ahal izateko.

Aukeraketaren emaitza baloratu eta aztertu genuen alearen produkzio, uniformitate, kolore, forma, osasun eta kalitate ezaugarrietan. Beste material guztia hor gelditu zen frigorifikoetan, aurrerago erabil daitezkeen lerro gisa.

Ondoren, eta Valentzian egindako ikerketa lan eder bati esker, babarrunaren kalitatearen azterketa hasi genuen: babarrun egosiak.

Urte horretan zortzi babarrun baloratu ziren. Lehen pausoa dastatze taula bat egitea izan zen parametro desberdinetan kalitatea baloratu ahal izateko: gogortasuna, uniformitatea, koipetasuna, gustua, kolorea, e.a. Dastatze lana Fronton jatetxean egin ziren. Roberto Ruiz sukaldariaren lana oso garrantzitsua izan zen dastaketan emaitzetarako.

Lan guzti honen ondorioz, hiru urtetan

Tolosako babarrun desberdinen kalitatearen balorazioa egin ahal izan genuen, kalitatean eta ekoizpenean hobekuntza lortzeko egokia zen babarruna erabiltzea proposatzeko ekoizleen elkarteari.

Bi lerro desberdin proposatu ziren: bat neurri txikikoa eta bestea neurri handikoa. Neurri txikioak lortu zituen puntuazio onenak kalitatean eta kantitatean puntuazio ona lortu zuten. Neurri handiko babarrunaren balorazioan alderantziz gertatu zen.

Baina hainbat ekoizleren iritziak eza gututa, bi aukera horiek edukitzea beharrezkoa zen: neurri txikioa Tolosan eta inguruko lekuetan kontsumitzea eta besteak neurri handikoa baloratzen du eta neurri txikioa baztertzeko.

Bukatzeo, ekoizleen elkartea egiten ari den lana eta esfortzua gorapatu nahi ditut. Ilusio handia dute eta hobekuntza handia egin dute, komertzializazioan besteak beste. Aurretik produkzio ona izan dute eta kalitatean espero genuen maila ari dira mantentzen. Prezioan gora egin du babarrunak, baina askoz gehiago ezingo du igo. Nekazaritzaren egoera gogorra da eta produkzioa asko ez handitzea erabaki dute gure baserritarrek.

PERTSONALKI ▶

▶ Alegiarra baina Aldaban urte askotan bizitakoa ▶ 71 urte ▶ Bost seme-alaba; seme bat eta lau alaba ▶ 11 urtetik jubilatuta bitarte arotz lanetan aritua ▶ Udalean laguntzen 18 urterekin hasi zen ▶ 46 urte bete ditu ezkontuta ▶

Karmen jaietako egunik gustukoena? Egundak ditut gustuko. **Sardinak edo gaztainak erretzea nahiago?** Sardinak erretzea; gaztainak egiterakoan sutondoan egon behar da denbora askoz.

TXINTXARRIA

«Txintxarriaren jaietara egitea proposatu nuen; paperezko txintxarria nik egiten dut eta erreketan ere egoten naiz»



Eta urte askotan bota ere bai; orain dela hamabost urte inguru alkateari esan nion udal ordezkariaren batek botatzeko eta ordutik aurrera horrela egin da. Txintxarriaren jaietara egitea ere nik proposatu nuen; egun, paperezko txintxarria egiten dut eta erreketan ere egoten naiz.

Antolakuntzan egonda, pazientzia handiko gizona al zara?

Jenio nahiko bizia daukat; haurrekin, garrasi batean ibiltzen naiz gauza askorekin kontua izan behar delako. Hala ere, atzera bueltan niregana zuzentzen dira beti herriko txikienak;

lanik politena jaietako haurrentzako ekitaldiak antolatzea izaten da. Aurten, gainera, gu-rasoez asko lagundu dute eta hori poztekoa da.

Lehenengo festak edo oraingorak nahiago?

Garai batetan, Karmen Egunean Donostiatik hiru udaltzain etortzen ziren trafikoa bideratzera; sekulako festa izaten zen. Orain, haurrek bakarrik gozatzeko dituzte jaiak; helduak, berandu (gauez) ateratzen dira tabernak isten ez dituztenez, berandu oheratzen direlako. Lehen, udaltzainak tabernatuberna joaten ziren isteko esanez.



BIOLOGIKOEI BIDEA IREKIZ

Duela bi aste Tolosako Nafarroa etorbidean ireki den Gorrotxategi biologikoa dendak era guztietako produktu biologikoak eskaintzen ditu



Gorrotxategi dendaren diseinu deigarriak oso harrera ona izan du bezeroen artean. NOELIA LATABURU

NOELIA LATABURU

Berria denarekiko kuriositateak jota denda honetara sartzen dena ez da ziurrenik esku hutsik irtengo. Eta hau hasiera baino ez da izango, izan ere gero eta handiagoa da produktu biologikoaren aldeko apustua egiten duen jende kopu-

rua. Hauxe zen Gorrotxategi biologikoa dendaren jabea den Blanca Gorrotxategi azaroaren 6an Tolosan denda ireki zuenean proposatu zuen helburuetariko bat, produktu biologikoen sustapena hain zuzen ere. «Nik produktu hauek kontsumitzen ditut eta elikadura honengan sinesten dudala he-

larazi nahi dut», azaltzen du Blanca Gorrotxategik.

Produktu hauek guztiak ezaugarri amankomunak dituzte eta hauen garrantzia azpimarratzen du Gorrotxategik. Batetik, ez dira genetikoki manipulatu. Bestetik ez dituzte ez produktu kimikorik ezta izurrikaririk ere. Azkenik, pro-

duktuek ez dituzte hormonak jaso. Dendan denetarik topa daiteke, eta bere jabeak esan duenez «pertsona batek bere erosketetan behar duen guztia topa dezake gure dendan eta bere elikadurarako beharrezko produktu guztiak biologikoak izateko aukera du gainera». Aitzindariak dira honetan, aurretik produktu hauetariko batzuk dendetan lor zitezkeen arren, oraindik ez zegoen produktu guztiak batera eskaintzen zituen dendarik.

Blanca Gorrotxategik, Sandra Murua eta Myriam de la Romana langileekin batera eskaintzen dituen aukeren artean mota ezberdinekoak topa daitezke. Lehenengoak elikadurari dagokio. Frutak, barazkiak, haragia, esnekiak, gozotegiko produktuak eta elikadura katean behar diren produktu guztiak daude bertan. Bigarrenean berriz, produktu zehatzak daude, tratamendu naturalekoak, katarroak, hipertentsioak edo loditasunaren aurkako produktuak hain zuzen ere, baita umen elikadurarako produktuak edo produktu kimikorik gabeko kosmetikakoak. Honetaz gain, dendak informazioa eskaintzen du beste zerbitzuen inguruan. Gainera, aurki pan-taila ukigarri bat jarriko da informazioa eskuratu nahi duen ororentzat.

Harrera ona

Balorazioekin hasteko goizegi den arren, Blanca Gorrotxategi pozik eta harrিতa azaltzen da bere zerbitzu berriak izan duen harrerarekin. «Produktu-aren bat probatu dutenek errepikatuko egin dute, etengabe zoriondu egiten naute eta hau pozgarria de erabat», aitortu du. Biologikoa elikadura osasuntsua dela azpimarratu du Gorrotxategik eta ez moda hutsa. Bere helburuetariko bat produktu biologikoak garestiak izatearen mitorrekin apurtzea da. «Jendeak biologikoa garestiarekin lotzen du eta hona etortzen direnean harrিতa geratzen dira, izan ere prezioa kalitatearekin bat doa», adierazi du arduradunak.

Tolosan jendeak badu produktu biologikoen garrantziaren aldeko kontzientzia. Leku guztietan egoera ez da berdina, baina denborak aurrera egin ahala gero eta gehiago salduko dira produktu hauek. «Nik produktu hauek eskura-

INFORMAZIOA ▶

Gorrotxategi dendak produktu biologikoekin harremana duten beste zerbitzuen berri ematen du. Hauek dira dendak luzatzen dituen zerbitzuak eta bakoitzaren arduradunak

Naturista. Txema Urteaga.

Dietista. Arri Egaña.

Makrobiotikako kontsulta.

Ane Revilla

Laser bidezko depilazioa.

Depil Club

Sukalde energetikoko

kurtsua. Nigama

Masaje zentrua. Inaxio eta

Aranxa Balerdi

Itotermie zentrua. Helena

Fernandez

Yoga zentrua. Bharat Martin

Akupuntura. Amaia Ross

Estetizista. Alicia Castillo eta

Maidor Beloki

Mesoterapia. Adela Molinero

Erretzeari utzi. Juan Carlos

Naranjo

Psikomotrizitatea. Dori

Dobon Yague.

DASTAKETA SAIOAK

Ostiraletan dastaketak egingo dituzte; abenduaren 10ean ardo biologikoak eskainiko dira

tzeko arazoak nituen eta Dostostiraino jo behar izaten nuen», aitortu du eta jende gehiagok hau pairatu ez dezan ireki du denda.

Produktu berriztatzaile eta hoberenak nabarmendu nahi ditu Gorrotxategi dendaren jabeak. «Produktu esanguratsu asko ditugu eta benetan merezi dute», esan du. Euren artean, olioak, piper gorriak, gurina, hanburgesak —batez ere, txalortara izena duen baratxuri eta perrexilez eginikoak—, fruta artean platanoak, tomateak eta mahatsak dira nagusiak, gazta, ogi zuria, kafea eta txokolate guztiak aipa daitezke.

Eta produktu biologikoak herritarren artera ezagutzera emateko Gorrotxategi dendak dastaketak antolatuko ditu ostiraletan. Lehendabizikoa abenduaren 10ean izango da, ardo biologikoekin. Hurrengoetan haragi biologikoak edo hanburgesa begetalak dastatuko dira. Denak Tolosako Nafarroa etorbideko 15ean dagoen dendan bertan izango dira. Informazio gehiago nahi duenak 943 11 87 62 telefonora deitu edota www.biologicogorrotxategi.com webgunera jo dezake.

ANDRES AKESOLO ▶ HARAKINA

«Haragi ekologikoa etengabe hazkundera dagoen produktua da»

Andres Akesolo Zeberion bizi da eta 1987. urtean hasi zen ganadu ustiapenarekin. Bizkaiko herri honen izena daraman bere baserrian haragi ekologikoa emango duten abereak baino ez ditu hazten.

Ze ezaugarri bete behar ditu haragiak ekologikotzat jotzeko?

Haragi hau Europako araudiak babesten du eta Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza Kontseiluak bermatzen du. Araudiak zehazten ditu bete beharreko pausoak, besteak beste abereak aske haztea, abereei produktu kimikorik ez ematea edo ongarririk ez botatzea.

Ze prozesu jarraitzen du haragi ekologikoak?

Abereak aske bizi dira, hama-

lau edo hemezortzi hilabetez. Tarte honetan zerealak, belarra eta urarekin elikatzen dira soilik. Horrela abereak ere zoriontsuagoak eta arinagoak dira bizirik daudenean.

Eta zer ezberdintasun nabaritu du bezeroak?

Lehenik eta behin, haragiak kalitate handiagoa du. Bere zaporea ezberdina da, landuagoa eta, batez ere, osasuntsuagoa. Segurtasun handiago ematen du, Eusko Jaurlaritzaren etiketarekin eta guzti.

Etorkizuneko haragia dela uste al duzu?

Merkatua hazten ari da. Pixkanaka doa. Europa guztian zehar barreiatzen ari da. Aitzindariak alemaniarrak dira, baita italiarrak ere. Geroz eta

jende gehiagok kontsumitzen du gure haragia.

Ba al da produktu bereizgarriren bat?

Txalortara da aipagarria, txekorraren atzekaldearen herena, baratxuri, perrexil eta gatzarekin eginikoa. Sukaldatze-ko astia ez duen jendearentzat oso egokia da, hozkailuan hamabost egunetan mantetzen da eta izoztu daiteke gainera. Launaka saltzen dira eta ez dute prestaketarik behar

Baina garestiagoa al da?

Oso prezio lehiakorrek dira. Guk zuzenean egiten dugu lan, bitartekaririk gabe eta horrek prezioa jaisten du. Kalitatea eta prezioa orekan daude, ohiko labelenak bezala eta goxoa-koak gainera... ◀

VILLABONA ▶ GIZARTEA

Jende andana izan zen atzo egin zen Ikasle Egunean

Egun guztian zehar ekitaldi ugari burutu ziren Ikasle Abertzaleek antolatuta, baina batez ere kontzertu erraldoia entzuteran joan ziren ehundaka gazte



Lagunarteko jokoetan giro ona izan zen nagusi. Ondoren bazkari herrikoa egin zuten Ikastolako arkupetan. I. GARCIA

IMANOL GARCIA

Villabona gaztez bete zen atzo. Ikasle Abertzaleek antolatuta zuten aurtengo Ikasle Eguneako ekitaldietan parte hartzeraz an-

matu ziren, batez ere gaueko kontzertuan. Guardia Zibilak goizean kontrolak jarri zituen herriko sarreretan —arratsaldean ere berriro jarri zituzten— eta horrek eguerdian



egin ziren lagunarteko jokoak atzeratu zituen. Halere, giro onean egin ziren eta parte hartu zuten guztiak barre nahiko egin zuten. Campus ezberdinek beren artean lehiatu ziren

Errebote plazan, eguraldi onak lagunaduta.

Jokoan ondoren bazkari herrikoa egin zen Ikastolako arkupetan. 250 lagun inguruk hartu zuten parte. Barrenak

ondo berotu ondoren batzuk bertso Gurea aretoko bertso saiora joan ziren. Besteak, berriaz, kaleetan zehar Txatunga Benbe perkusio taldearekin kalejiran aritu ziren. Bertso saiora hirurogeita hamar lagun inguru agertu ziren. Ikasle Eguna izaki, ikasleen eta gazteen gaiak jorratu zituzten bertsolariak. Barre egiteko aukera izan zuten herrira irekita egin zen emanaldira agertutakoek.

Marea taldeak ez zuen jo

Jende uholdea arratsalde inguruan agertu zen. Manifestaldia egin ondoren, *Guk, hemen, orain... historia idatziko dugu! leopean*, gerturatutakoak karpak erraldoira joan ziren. Bertan ekitaldia egin ondoren, kontzertu erraldoia hasi zen.

Taldeen artean Marea falta zen. Antolatzaileek argitu bezala, atzo goizean deitu zieten taldekoek ezin zutela joan esanez, abeslariak herenegun egindako kontzertuan ukalondoa apurtu baitzuten. Antolatzaileek ezin izan zuten maila berdineko beste talde bat lortu egunerako eta horregatik beste lau taldek jo zuten: Las Niñas, Kauta, Hamlet eta Eraso. Jende andana bildu zen goizaldera arte luzatu zen kontzertuan.

TOLOSA ▶ FUTBOLA

Tolosak lider jarraitzen du Mutrikun irabazi eta gero

0-3 irabazi zuen nagusitasunez; golegileak Aimar, Lasa eta Prados izan ziren

I. GARCIA

Tolosak lidergoan jarraitzen du atzo Mutrikuren kontra 0-3 irabazi ondoren. Tolosarrak erraz nagusitu ziren eta etxetik kanpora emaitza onak lortu ditzaizketela erakutsi zuten berriro. Aukera asko izan zituzten futbol taldekoek. Mutrikuarrek, berriaz, aukera garbi bakarra izan zuten partida guztian.

Lortutako golen aldea handiagoa izango zen, hirugarren minutuan Mutrikuko atezainak Lasak botatuko penaltia gelditu izan ez bazuen. Lehenengo gola, atsedenaldira iritsi baino minutu bat lehenago lortu zen: Aimarrek buruz errematatu zuen kornar bat. Bigarren zatia hasi bezain laster iritsi zen hurrengo, 48. minutuan. Lasa oso bizi aritu zen: Mutrikuko atzelari batek atezainari eman


zion baloia, baina honek huts egin zuen eta jokalaria tolosarrak lasai asko bidali zuen baloia sareterara. Azkeneko gola Pradosek lortu zuen, 77. minutuan. Taldeak egindako kontrerasoaz baliatuz, ongi definitu zuten atezainaren aurrean. Horrelako beste aukera izan zuen geroxeago, baina beste bati pasatu zion baloia eta epaileak jokoz kanpo adierazi zuen.

Datorren asteburuan Oiarzunen aurka dute partida etxean tolosarrek. Oarsoaldeko taldea ez dabil fin aurten, beraz, Tolosak beste hiru puntu lortu behar ditu.

Jokatu zuten jokalariek: Apeztexea, Gorka, Aimar, Aierbe, Garmendia, Romero, Orue (Elo-la), Garagarza (Patxi), Regillaga (Prados), Aranguren eta Lasa (Cristian). Txartel horria jaso zuten: Garagarza eta Patxi.

EZKONTZAK 2005

Herri Irratia
RADIO POPULAR



DONOSTIA - OM 1224
FM 94.8

BAYON
Bergara, 23 - Donostia. 943-425087
Emaztegai eta amabixentzako jantziak.
Oparia: Emaztegaiaren jantziarentzako erosketa txartela

SILKEN AMARA PLAZA HOTELA
943-464600
Oparia: Silken kateko hotelean 2 pertsonentzako asteburua.

AITZBELTZ
Arteta, 1 - 943-591226 - Andoain
Sukaldeko altzari eta etxetresna-elektrikoak.
Oparia: AEG ikuzgailua, azken belaunaldikoa

SANCHEZ INPRIMATEGIA
Easo, 33 - Donostia
943-465308. Ezkontzarako gonbidapen eta opariak.
Oparia: Ezkontzarako gonbidapenak.

ANTZINAKO KOTXEAK
627-467219
Antzinako benetako kotxeak.
Oparia: Ezkontzako kotxea.

AUZMENDI SASTREA
Bergara, 1 - Donostia.
943-424060. Senargaiarentzako jantziak.
Oparia: Senargaiaren jantziarentzako erosketa txartela.

LOIOLA - FM 99.8

BIKOITZ ARGAZKIAK
Andoain. 943-300727
Erreportajeak eta estudio argazkia.
Oparia: % 50eko beherapena ezkontzako bideo erreportajearen.

JAUREGUI JATETXEA
Hernani. 943-550034
Era guztietako ospakizunak.
Oparia: Presidentetza-mahaiarentzako bazkari edo afaria.

MUNDO MUEBLE - ARRE
Iruña. 948-331161
Era guztietako altzariak.
Oparia: Erosketa txartela.

AMETS LEIHOAK
Carlos I, 19 - Donostia
943-465658. Sumun lehiokak, Lumun terrazak...
Oparia: 300 eurotako beherapen txartela

CODORNIU
Zure ospakizunetako cava.
Oparia: Ezkontzako cava

IZARRA BITXITEGIA
Iparjoi Taldea - Lasarte.
943-364945. Bitxitegi eta erlojutegia.
Oparia: Urrezko ezkontza-eraztuna, ezkontza-horniak, zilarrezko erretilua.

e-mail: novios05@herri-irratia.com

2005 urtean ezkontzera bazoaz, idatzi gutun bat edo kupo hau bete eta azaroaren 25a baino lehenago bidali ondorengo helbidera:

HERRI IRRATIA - DONOSTIA
Garibai, 19 - 20004 DONOSTIA

HERRI IRRATIA - LOIOLA
Loiola Auzoa
20730 AZPEITIA

Senargaiaren izen-abizenak:

Tel.

Helbidea:

Posta-kode:

Herria:

Emaztegaiaren izen-abizenak:

Tel.

Helbidea:

Posta-kode:

Herria:

Ezkontzaren inguruko data:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Loyola Media, S.L., ek. L.O.15/199-ko Iazera Pertsonaleko Datuen Babesaren onarritza, jakinarazten du Datu Pertsonal guztiak fitxategi batetan sartuko direla, guzti honen xedea gure zerbitzu-erretzea izango delarik. Honako datu hauek babesean eman diezazkiegu. Datuak gaur egun dagoen legegidiaren arabera erabiltzeko dira eta Loyola Media, S.L., Garibai 19, 20004 Donostia datu bat bidali ezkerre, datuengandako sarerra, zuzenbide, aurkakotasun eta deuseztatzen eskubideak erabiltzeko.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoetaledea. Medikua: 65 23 39
Asteasu. Medikua: 69 24 23
Berastegi-Elduain. 68 33 61
Bidegoian. Medikua: 68 11 34
Ibarraldea. Osasun eb: 672411
Ikaztegijeta. Medikua: 65 33 29
Irura. Osasun zentroa: 69 07 20
Leitza. Osasun z.: 948 510800
Lizartza. Medikua: 68 20 77
Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
 ▶ San Esteban: 00 68 00
 ▶ Gernikako arbola: 00 69 00
 ▶ Asunzion klinika 67 57 99 -
 67 53 90 (larrialdia)
 ▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
 ▶ DYA: 67 25 36
 ▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
 ▶ Ertzaintza: 53 88 20

Villabona-Aiztondo.

Anbulatorioa: 00 69 70
Zizurkil. Aiztondo zerbitzua:
 693930

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Exebeite J. M. Gernikako
 arbola 3 (Tolosa). 943 65 10 40.
 Larraia M.I. Elbarren 95 (Leitza)
 112.

Bihar. Quetglas M.A. Euskal
 Herria 46 (Ibarra). 943 673274.
 Plaza, M. Elbarren 36. (Leitza).
 112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.
 tolosaldean_publi@tolosaldeko
 hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -
 687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

Villabona-Aizt. 687 41 00 22.
 villabona-aiztondo@tolosaldeko
 hitza.info

Anoetaledea. 687 41 00 22

anoetaledea@tolosaldeko-hitza.info

Ibarraldea. 687 41 00 32.

ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

Leitza. 687 41 01 18.

leitza@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶**SALGAI**

Taberna. Gazte taberna salgai
 Tolosan. 660 178 183

Apartamentua. Anoetako
 plazan apartamentua salgai.
 Guztiz berritua, berokuntza
 sistema eta gasarekin.
 615 767 764.

Autoa. Ibiza GT TDI (110) .
 84.000 km eta extrekin.

Motorra. Honda NS1 80ko
 motoa. Tavi eskapearekin. 665
 70 77 57.

LANA

Sukaldaria. Sukaldaria behar
 da asteburuetan tabernan lan
 egiteko. 943 69 19 33.

BABARRUN ASTEA ▶

Mari Karmen Iradi babarrun elkarteko lehendakaria izan da aurtengo irabazlea

Lehia oso gogorra izan zen eta azkenen irurarrak irabazi zuen; lehen aldiz egin zen enkantean 1.100 euro ordaindu ziren irabazlearen lakariarengatik



Jendetza bildu zen atzo Triangulo plazan bertako produktuak eta babarrun lehiaketa ikusteko. I.TERRADILLOS

IÑIGO TERRADILLOS

Babarrunaren Astearen barruan egun berezia izan zen atzokoa Tolosan. Goizean goizetik giro polita izan zen kaleetan zehar txarangek, dultzaineroek eta erraldoi eta buruhandiek alaiturik, batez ere Triangulo plazan, bertan ari baitziren prestatzen geroago epaimahaik aukeratuko zuen aurtengo babarrun onena, Mari Karmen Iradi irurarrarena, alegia. Honetaz gain, azoka berezia ere izan zen eta bertako babarrun, piper, odolki, txerriki, gazta eta abarrekin...gozatzeko aukera izan zuten hurbildu zirenek.

Babarrunak ondo egitearen sekretuetako bat su epelean egitea denez eta honek denbora asko eskatzen duenez, 8:00etarako hasi ziren Fronton jatetxeko Roberto Ruiz, Orue

jatetxeko Anjel Oruesagasti eta Alacant-eko Kattagorri jatetxeko Aitor Saratxaga sukaldariak. Hauen hitzetan, «aurtengo babarrunak itxura ona dauka, azal fina du eta beraz errazagoa da egiteko eta zapore ere oso ona, agian pasa den urtekoa baino zertxobait hobea da».

Hauek babarrunak mimo handiz prestatzen ari ziren bitartean, ikusgai zeuden mahai batean parte hartu zuten 20 babarrun ekoizleen aleak platerxoetan. Antolatzaileek adierazi zutenaren arabera, aurreko urteetan ikusmin handia sortzen zuten ekoizle desberdinen aleek, bertaratzen zirenek ikusi eta ikutzeaz gainera kosk egitera ere heltzen zirelarik eta dena ale horien sekretua zein den atzemateko. Aurten, ordea, hesiturik zego-

en mahaia, beraz ikustearekin konformatu zen jendea.

Sukaldariak bere lana buruturik zutenerako epaimahaiko kideak—guztira 18—euren lekuetan jartzen hasiak ziren. Orain beraiek izango ziren protagonista, beraiek aukeratu beharko baitzuten aurtengo babarrun onenaren ekoizlearen izena.

Eguerdia aldera hasi ziren epaileei babarrun platerxoak ateratzen, bakoitza banan-banan aztertu eta puntuatzeko. Aurretik, ordea, babarrun aleak begiratu zituzten, horiek puntuatzea baita lehenengo lana. Arlo honetan bost faktoreren arabera eman zituzten puntuak batetik bestera; itxura, kolorea, berdintasuna, dizitira eta garbitasuna dira jarraitu beharreko irizpideak.

Babarrunak prestatuta eta

SAILKAPENA ▶

Izena	Herria
1. Mari Karmen Iradi Miner	Irura
2. Pakita Rekalde Garro	Irura
3. Joxe Mujika Garmendia Legorreta	

GAUR ▶

08:00. Tolosako Babarrunaren VIII. Lehiaketa Gastronomikoa, Ferialekuan.
11:00. VII. Artzain-txakur Lehiaketa, Iurreamendin.
13:00. Tolosako Babarrunaren VIII. Lehiaketa Gastronomikoaren epaia eta sari banaketa.
14:30. Herri bazkaria, Ferialekuan.

behar bezala egosita, itxura, kolorea, azala, alea, salda eta zaporeari begiratu zion epaimahaik. Lehen begiradun aleak hautsita dauden, saldak nolako lodiera duen eta koloreari eman behar zaio garrantzia, eta zertxobait dastatu eta gero biguina izateak zeresan handia duela zioten. Epaimahaikideek orokorrean, oso ona zela aurtengo babarruna, iaz baino hobea, maila altua zegoela eta nahiko orekatuta zegoela lehia aipatu zuten.

Puntu guztiak batu ondoren, Mari Karmen Iradi irurarrak, Tolosako Babarrun Elkarteko lehendakaria eman zuen lehendabiziko saria ustekabe handiarekin. Hirugarren saria berak banatu zuen eta ez zuen inondik ere espero irabazle suertatzea.

Sari banaketaren ondoren irabazlearen lakaria (3 kilo pasatxo) jarri zen enkantean. Lehen aldia zen egiten zena eta espero baino hobeto gauzatu zen. 1.100 euro ordaindu zituen Sagardi enpresako Iñaki Viñasprek, ordubeteko iraupea izan zuen lehia gogorra eta gero.

Aipatu behar da, enkantean ordaindutako dirua Maliko osasun zerbitzu bat laguntzeko erabiliko dutela eta lehiaketan irabazi duen babarruna ere bidaliko dutela Maizra.

OTEGI
 eraikuntzak, s.l.

Promozioa eta eraikuntzak

Bizkai kalea, 2 - behea
 20400 TOLOSA
 Faxa: 943 69 71 98
 Tel.: 943 67 21 72 - Mug.: 608 77 28 01

ESKERTZA ▶

BITTOR IBARBIA MATXINEA jaun hil berriaren seindeen partetik, eskerrak samin agurra bidali zuten eta hileta elizkizunetara etorri zireten guztiok.

Berrobi. 2004ko azaroaren 21a

M. KARMEN IRADI >
IRABAZLEA

«Ez nuen
espero
irabaztea»



I.TERRADILLOS

Tolosako Babarrun Elkarte-ko lehendakariak, Mari karmen Iradik irabazi zuen aurtengo babarrun onenaren saria. Ustekabez, harrituta eta oso pozik jaso zuen Jokin Bildarratz Tolosako alkateak emandako saria.

Ez zenuen irabaztea espero. Ez, eta harrituta nago. Ilusioa handia egin dit nire izena esan dutenean.

Zein da babarrun onenaren sekretua?

Mimo handiarekin lantzea. Soroan ondo landu behar da, astiro eta horrela lortzen dira gero emaitza onak.

Aurtengoa iazkoa baino hobea dela aipatu dute. Horrela al da?

Oso ona da aurtengoa, iazkoa bezala. Kosta egin zaio eguraldia dela eta ateratzen, baina behin aterata oso ona zela argi zegoen.

Kilo asko al dituzu baratzen?

1.000 kilo inguru ditugu aurretan eta oraindik ere jasotzen ari gara.



Manuel Tolosa eta Desiree Gonzalez Txapela nork hobeto jarri Lehiaketako irabazleak. I.TERRADILLOS

I.TERRADILLOS

Babarrun Asteko beste ekitaldi garrantzitsua, babarrun lehiaketaz gain urtero Txinparta elkarteak antolatzen duen Txapela nork hobeto jantzi Lehiaketa izaten da.

Aurtengoan 22 gizonek hartu zuten parte eta emakumezkoetan, berriz 6 izan ziren lehiatu zirenak.

Epaimahaia Boinas Elosegiko Jose Ignazio Manzisidorrek, Iurre Peñagarikano Udaleko zinegotziak, Txomin Garmendia bertsolariak eta elkarteak Jose Zapirainek, Jose Luis Garmendiak, Juan Bautista Aranzabe Matek eta Juan Zubeldiak osatu zuten.

Asko dira epaimahaiak kon-tuan hartzen dituenak eta horren arabera bakoitzak batetik zazpita eman behar puntuak.

Lehiaketa honetan, partaide bakoitzak jantzita eramaten du txapela, ondoren epaimahaiaren aurrean kentzeko eta berri-ore ere jantzi egin behar du.

Txinparta elkarteak Juan Bautista Aranzabe Materen arabera, alde batera eraman behar da txapela eta kentzerako orduan behatzekin aurreko partetik heldu eta atzera eginenez burutu behar da ekintza.

Jantzeko berriz txapela ondo prestatzea garrantzitsua da, eta behin buruan, ez da gehie-

Gure txapela jartzen maisuak

Manuel Tolosak irabazi zuen hirugarren urtez jarraian lehiaketa

gi sartu behar eta zuzen eraman ordez okertuta eramatea da ohikoena. Hala ere, elkarte-ko kidearen arabera, «hauek gomendioak baino ez dira eta gero txapela jantzen duenak ikusi behar du nola eraman edo nola gustatzen zaion jantzea».

Bestalde, gizonetakoetan hirugarren urtez jarraian Manuel Tolosa Gibelalde tolosarrak irabazi zuen. Gustura ageri zen Jokin Bildarratz Tolosako alkateak emandako sariarekin eta, hirugarren urtea bada ere, beste edozein izan zitekeela eta ez zuela irabaztea pentsatzen aipatu zuen.

Tolosak adierazi zuenez, «jendeak oso ondo jartzen du txapela, eta aurretan oso maila altua zegoen lehiaketan».

SAILKAPENA >

Gizonak

Izena	Herria
1. Manuel Tolosa (69 urte)	Tolosa
2. Pablo Azurza (11 urte)	Tolosa
3. Juan Tolosa (65 urte)	Ordizia

Emakumeak

Izena	Herria
1. Desirée Gonzalez (26 urte)	Tolosa
2. Lucrecia Otaño (54 urte)	Andoain
3. Maite Sanchez (57 urte)	

Gazteena: Luzia Aranzabe Gonzalez (2 urte). Tolosa.

Zaharrena: Florentino Gastesi Narbaiza (86 urte). Legorreta.

Elkarteko lehena: Antonio Merino Merino.

Elkarteko bigarrena: Joxe Oria Aranberri.

AZOKA >

Egun borobila izan zen atzokoa azokan

Babarrunarekin zerikusia duten produktuak nagusitu ziren batez ere

PABLO ALBERDI

Atzo, babarrunaren azoka berezia egin zen Tolosan eta espero zen bezala jende ugari bildu zen azokan. Eskaintza oso zabala izan zen eta nabarmendu ziren produktuak, babarrunarekin zerikusia dutenak izan ziren: aza, odolkiak, mondejuak, txistorra... Aipatzekoa dira perretxiko eta ondoak.

AZOKA >

Zerkausia	merk.	gares.
Bertako produktuak		
Oilaskoa (3. ast.)	1,50	-
Oilaskoa (4. ast.)	1,60	-
Arkumea	3,00	3,20
Ahatea	2,50	-
Intxaurra	3,00	4,00
Gaztaina	2,00	3,00
Tipula	0,80	1,00
Kalabaza	1,50	3,00
Porru	2,00	5,00

Produktu ekologikoak

Intxaurra	4,00	6,00
Sagarra	2,00	3,00
Azenarioa	2,00	2,50
Babarruna	6,00	-
Dilistak	2,40	-
Tipula	1,75	2,00
Lebuxa	1,00	-

Berdura plaza

Lilia	1,20	-
Krabelina	4,80	-
Txilarra	4,00	-
Konifera	6,00	-
Larrosondo	6,50	-
Erromero	4,00	6,00
Azalea	3,50	10,00
Xarbota	4,00	6,00
Pentsamendua	1,00	-

HITZA

lagunen
txokoa

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

> HITZARI 42 euroko diru laguntza ematen dioten harpidedunek HITZA egunero jasotzeaz gain **ABANTAILA EZBERDINAK** izango dituzte; harpidedunen txartela izango dute eta, besteak beste, HITZAK egiten dituen zozketetan parte hartzeko aukera izango dute.

> HITZAREN laguntzaile izan nahi baduzu, deitu **943 30 43 46** telefono zenbakira.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

Harpidedunei banatua ▶ 2004ko azaroaren 21a, igandea ▶ II. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Abaltzokieta, Aduna, Altsatur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Baliarrain, Belaurtza, Berastegi, Elduain, Herrialde, Itzara, Irua, Larrail, Leaburu, Lizarza, Orendain, Orens, Tolosa, Villabona, Zizurkil.

Gipuzkoako Foru Aldundia

Eusko Jaurkitza. Kultura Salla

Eusko Jaurkitza. Kultura Salla

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena 14 hotzera 11

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA (zalantzak, harpide egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alkiza. Guraso Eskola. Bihar 16:15ean.
Amasa. XII. Mendiatioia 11:00etan.
Baliarrain. Jubilatuko Eguna: 11:00etan meza; 12:00etan Haur Eskola inauguratuko dute; 13:00etan *Bakardadea eta 3. adina* hitzaldia.
Belaurtza. Sustrai Kolina eta Amets Arzallusekin, bihar bertso afaria tabernan.
Ikaztegieta. XIV. Kros Herrikoa 10:45ean.
Ikaztegieta. Irakurketa saioa eskolan bihar (15:00).
Ikaztegieta. *Ariketa: osasunerako arriskurik gabe* hitzaldia, bihar 20:00etan kiroldegian.
Orendain. Hitzaldia herriko historiaz 12:00etan Eltxon.
Tolosa. Inauterietako karroza eta konpartsen bilera. Asteartean 19:00etan Kultur Etxean.
Tolosa. Laskorain Ikastolako ikasle ohien afarirako txartelak Orbela, Ikatzeta eta Iruña tabernetan 20 eurotan. Bihar azken eguna.
Tolosa. *Boluntariotza: nondik nora?* hitzaldia. Etzi 19:00etan Kultur Etxean.
Tolosa. Santa Zezilia eguna dela eta, Eduardo Mokoroa musika eskolako akordeoi, bibolin eta perkusioz osatutako taldea bihar 18:15ean aterako da eta 20:00etan, Musika Banda.

KULTUR ASTEAK

Aduna. 13:30etan bakailao txapelketa; 14:00etan herri bazkaria, sagardo lehiaketa barne; ondoren Lazkao Txikiren bizitzaren pasarteak bertsoan Xabier Amurizaren eskutik. Artisaun erakusketa Kultur Aretoan.
Berastegi. 11:00etatik aurrera, azoka berezia; gazta, ipuina eta argazki rallyko irabazleei sari banaketa; 18:00etan dastaketa; 20:00etan bertso musikatuak.
Larraul. Bihar *Herensugea* txobxongilo saioa 17:00etan.

ZINEMA

Leitza. *Glup* marrazki bizidunen filma 17:00etan zinemara.
Tolosa. Leidorren *Doraemon gladiadorea* gaur 17:00etan eta *Resident Evil 2 Apocalypse* 19:30ean eta 22:30ean, gaur eta bihar.



Irua. Loatzoko ikasleen kalejira burua plazatik ateratzen. I. GARCIA



Gatzelu. Kontzejuak atek ireki zituen herenegun. I. TERRADILLOS

Ekitaldiz ekitaldi

TOLOSALDEA ▶ Eskualdeko hainbat herritan ekitaldi asko burutu ziren atzokoan: musika, haur ikuskizunak, taberna inaugurazioak, besteak beste



Berastegi. Eskolan egindako haur ikuskizuneko une bat. J. SAIZAR



Aduna. Haur ugari inguratu ziren eskulanak egitera. I. GARCIA

ERREDAKZIOA

Tolosaldeko bederatzita herritako haurrek Santa Zeziliari omenez kalejiran erraldoian atera ziren Iruratik Anoetara. Loatzo musika eskolako 350 ikasle instrumentu ezberdinekin edo ahotsarekin kaleak alaituz ibili ziren elkarrekin. Aduna, Alegia, Altxo, Anoeta, Ibarra, Irua, Larraul, Villabona eta Zizurkilgo musikari gaztetxoek beren zaindaria omendu zuten. Loatzoko zapia lepoan zutela, Ikusi mendizaleak eta Gora ta gora beti abestien doinuak erabiliz, Amaia Agirrek egun honetarako idatzitako abestiak kantatuz aritu ziren. Tolosan ere iluntzean atera zen Ikasleen Banda atera zen eta bihar ikasle batzuk eta Musika Banda aterako dira kalejiran.

Berastegin, Kultur Astearren barruan, jende ugari inguratu zen eskoalra, Behi bis taldearen haur ikuskizunera. Ondoren txokolatada eta hitzaldia zen. Gaur bukatuko da astea azoka bereziarekin.

Adunako Kultur Astea bere azken egunera iritsiko da gaur. Atzo goizean, lagun talde bat bildu zen Belkoanera igotzeko. Arratsaldean haurrek gozatu zuten eskulanak egiten eta ondoren herri kirolak ikusgai izan ziren. Eguna bukatzeko barrikotea egin zen frontoian. Gaur, besteak beste, herri bazkaria izango da eta ondoren Xabier Amurizaren bertso emanaldia.

Herenegun iluntzean, urtebetez itxita egon den Kontzeju taberna-jatetxea berriro zabaldu zen, Esteban Pagola gazteluarraren ardurapean. Jende asko inguratu zen lehen eguneko ekitaldira. Atzo, haurrentzako txokolate jatea izan zen, sorpresa eta guzti. Ondoren, sagardo dastaketa egin zuten eta herri afaria. Bukatzeko, Martxaundi gaua Jone bakarlarriekin.

Larraulen berriz, talo egiten erakutsi zuten herriko emakume batzuk eta bihartik aurrera Kultur Astea izango dute. Bihar Enkarni Genuaren txobxongilo emanaldia izango da.

ZORION AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Maria Larrarte (Tolosa).
Bihar 8 urte.

Zorionak familiaren partetik.



URTE ASKOAN
Asier Aierza (Tolosa). Bihar
5 urte. Zorionak Aritz eta
gurasoen partetik.



URTE ASKOAN
Eneko Zubiria. Zorionak eta
ondo pasa. Aita, ama eta
berezikoi Asierren partetik.

HITZA, zorion agurren tarte

Urtebetez, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5 behe - TOLOSA
Udaletxeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, argazkia
bi egun lehenago ekarri.
Mila esker!